

N: 416

JESUSEN BIOTZ SAGRADUCO BILLERAAANSTU.

EDO CONGREGACIOAREN GAÑECO

GAUZA CERBAITZUEC DACAZQUIEN

LIBURUCHOA.

Obispo Jaunaren baimenarequin.

A. M. D. G.



VITORIA:

Imprenta, L. y L. de la VIUDA DE EGANA É HIJOS.

1870.

ATV
8457



ATU 8457

JESUS-EN BIOTZAREN CONGREGACIO
EDO BATZARRE-SANTUCO
LIBURUCHOA.

LEGE TO DICTARE CORRIGENDI
EBO BATHARRE-27/11/60
AMERINDIA

M- 8234

Aju 8457

R. 36142

JESUSEN BIOTE SAGRADUCO BILLERA-SANTU

EDO CONGREGACIOAREN GAÑECO

GAUZA CERBAITZUEC DAAZQUIEN

LIBURUCHOA.

Obispo Jaunaren baimenarequin.

A. M. D. G.



VITORIA:

Imprenta, L. y L. de la VIUDA DE EGAÑA É HIJOS.

1870.

Por el presente concedo á Vd. la licencia que tiene solicitada para imprimir el opúsculo escrito en idioma vascongado que lleva por título *Jesusen Biotz Sagraduco Billera-Santu edo congregacioaren gañeco gauza cerbaitzuec dacazquien liburuchoa*, mediante á que, examinado y censurado por mi órden, nada contiene que se oponga á la fé y á las buenas costumbres, previniendo á Vd. que ántes de proceder á la expedicion de los ejemplares impresos, remita uno á mi Secretaria de Cámara, solicitando nueva licencia.

Dios guarde á Vd. muchos años. Vitoria 4 de Enero de 1870.—DIEGO MARIANO, *Obispo*.

Sr. D. José Ugarte, Presbítero Beneficiado de
OÑATE.

LENENGO PARTEA.

JESUSEN BIOTZARI JAYERA TA ESCAERAC.

*Sartu-aurreraco jaquimbide edo Oar-
querac.*

1.^a Erromaco *Sancta Maria ad Pi-
neam* deritzan Elizan, mundu fedeo-
sodun gucico cristau ley alentzaco, le-
guez eta bidez ipiñia arquitzen da Bi-
llerasantu au; eta bere eguitecoa da
(duen icenac ere dionez, eta arguia-
go oraindic emen guero ezarricodan,
beraganatzeco oracio edo otoitzetic
iguerri leiqueanez.) Jesu-Cristo gu-
gatic gurutzean illaren, eta bere Biotz
iracequi, aldareco Sacramentu guciz
Santuan gugatic amorez sutua dagoa-
naren gloria gueyago ta gueyago aur-
reracitzea ta gueitzea; eta amorezco

misterio edo ez cutamen onetan eguiten zaizcan ez-bearrac ta charqueriac onez ordaintzea.

2.^a Billera santu onetan inscribatuac daudenai ezarritzen zaiyeten eguimbearra da, egunero *Aita-gurea*, *Ave-Maria*, eta *Credobat* Jesusen Biotzdone edo Sagratuari jayaraz errezatzea, esanaz gañera biotzez otoitzaldicho edo oraciocho labor au:

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitea!
Partu ta gueitu idazu
Beti zu amatzea.....

3.^a Eguiten du Billera santu onec, artaraco siñalatua daucan Elizan, ill bacoitzaren lenengo jaiegun edo igandean diaquinde edo funtziocho bat, ceñac, Jauna-patenterequin, ta sermoita guci, ordu-bete guchi gora beerra iraun oi du. Eta ill bacoitzaren lenengo domeca edo jayean confesatu ta comulgatzea, Aita Santuaren gogoraco erregutuaz, bere congregante edo Billeracoai encargatzen diye; or-

rela eguiñarequiñ aguindua daucaten indulgencia edo barcamendu ona irabaci dezaten; eta ala eguiaz, beren artean oitura eder au gordetzen duté.

4.^a Baditu gañera Billera onec beste eguimbide santu asco, nola dirán, Billeraco edo congregante ciranentzaco Mezac canteracitzea, urtean bein Meza nausi bat esanacitzea, aurrez edo ondorean Jesusen Biotz Sagraduari bederatziurrena eguiten zayola etc.

5.^a Jaquiñ bear da ere cearo ta garbi, Billera Santu onetaco bete-bearac eta eguinguizunac ez dutela inólaco moduz *berenez* obligatzen edo beartzen pecatu ez larri ta ez benialcho baten ere azpian, eta ala, bertan izcribatua dagoanac, ez dio bere concienciari calteric eta acatzpitiñ bat ere eguiten, gauza bat edo beste utziarren, eta oandic gueyago dana, *berenez* ezta guztia oso utzita ere.

6.^a Jesusen Biotz Sagraduaren Billeracoac irabaci al ditzagueten in-

dulgenci edo barcamen osoac bi moduzcoac dirá; batzuec irabazteco naicoa dá, ezarritzen dan obra ona eguita, ta confesatu, comulgatu eta Aita Santuaren gogoraco erregutzea.

Irabazten dira aurrengoac, ceñac baidiran Purgartorioco animavezarricorrac, onaco egun vetan:

1.º Ostegun Santuz:

2.º Pistuera edo Erresurreccioco Pazcoa Igandean:

3.º Ascensio-jayan edo Jesucristo G. J. en ceruratze egunean:

4.º Eguarri-egunean:

5.º Ama Virgiñaren pesta-egun Sortzeguciz Garbico, Berri-on edo Anunciacioco, Eliza-sartze edo Purificioco, eta Jasocera edo Asuncio-coetan; Santu Guztien Jayan, eta Anima bedeincatuen oroipen egunean; San Joseren, San Pedro ta San Paulo Apostoluen, eta San Juan Bautista Evangelariaren egunetan: jaquiñaren gañean ordea, esan dan Eliz-visitaztea eciñ bada eguin, gaisotasun, mi-

ñantz, edo beste eragozmen arrazoiz-
coren bategatic, compesoreac seña-
latzen dion obra onenbat eguitea nai-
coa ta orobat dala, indulgenci orieci
irabazteco.

Irabazten dirá bigarren barcamen
edo indulgenci osoac egun oyetan.

1.º Billeran sartuera eguiten dan
egunean:

2.º Jesusen Biotz sagraduaren
pesta-egunean:

3.º Ill bacoitzaren leenengo ostiral
edo Igandean:

4.º Ill bacoitzaren egun bat edo-
ceñean:

5.º Irabazten dute ere barcamen-
du osoa eriotzaco zorian, benetan da-
muturic, Jesusen icen gozoa esaten
edo deitzen dutenac, dala mingañez,
dala, ori eciñean, biotzez edo gogoz.

Entero asco dira Billerazaleai aguin-
duric dauden barcamen partezcoac,
eta era ascotara iraba leizqueanac.
Oetatic bata da irureun eguneco bar-
camendua; ceña irabazten da erreza-

tuaz iru *Gloria etc.* goicean, eguardian eta illuntzean Irutasun edo Trinidadeguciz Santuari, Ama Virginiari bere Ceruetaraco Jasoera gloriazcoan eguincizcan doay ta graciagatic esquerrac emateco.

Gañera irabazten da barcamendu osoa, anima bedeincatuai ezarrigarria, Jesusen Biotz Doatsuaren pesta-eguitean Eliza, Capilla edo Erregute-guiren-baten, pesta-egunean bertan, eta orobat sei ostiral edo Domeca aurrecoetan, toqui santu hura visitaturic; ta compesatu, comulgatu eta Aita Santuaren asmoraco erreguturic.

*Billera santu onetan sartzeco
Escaera.*

Ni..... Jesucristo gure Jaun, gugatic gurutzean ill zanaren, eta bere Biotz iracequi, Aldareco Sacramentu guciz-Santuan amorioz gugatic suturic dagoanaren gloriya ta omena gueyago ta gueyago aurreracitzeco, eta

amoriozco ezcutamen onetan eguiten
zaizcan bidegabequeriac ordaiñtzeco
eta desiraiñtzeco; bat eguiten naiz Bi-
llera Jaincozco onetan alcaturic dau-
den guciaquin parte artu nairic ere,
berari emanac dirac barcamen san-
tuetan, eta gozanairic bertan eguiñ oi-
dan onezpirituzco guzti guztiaz nere
becatuen ordañean et Purgaterico
animen sufragioraco.

Aritzatzu, Jesus nereca, cere Biotz
donean Jaungozco batzarquida onetan
batutaco danac, zure maitetasun Jaun-
goizcoan iracequia cizan ditecen, eta
cere aguindu santuac ta beren bici-
moduco betebearrac oso-oso gorde
ditzaten. Amen.

Goiceroco escaera.

¡O Jesusen Biotz guztiz maitagarria!
Cereganatzen dizut egun onetan nere
biotzaren erdi-erditic sortutzen zai-
dan leenengo arnasa au; erreguturic
ciñez eta menaz, diña zaiteala arren

zuentzeaz gaur nere gorputz eta animaco eguite guciac; ceñac obetu eta garbitu ditzala cere Biotz oso gozatsuac, cereáquin bat eguiñ ta escañiric, secula gucico alabanzan, cere Airta Beticoari. Ala izan dedilla.

Lotara-aurreco otoitza edo Oracioa.

¡O Jesusen Biotz guztiz gozoa! Eman ten dizquitut humillquiro cere contura gau-onetan nere biotz ta gorputza, ceregan gozatsu atsedan dezaten. Baña, nola nere lo-bitarte onetan eziñgo zaitudan alabatu, alaco moduz cerorrec ordectu nazazu, non, cembat aldiz nere biotzac dardaraten duen, ambat bider Irutasun guciz Santuari nigatic alabanzac esqueini diozcatzun; eta cembat asnasa artzen ditudan, ambat esqueronezco emanaldi ta amore-iracequizco sentiera beraganaco izan ditecen. Ala guerta dedilla.

*Jesusen Biotz guciz Santua desirain-
tzeco Eguintza.*

¡Jesus gozo, Salvatzalle maitagarria, gañezca eguiterañooco onguinai miragarrienaz, Aldareco Sacramentuan gurequin guelditzera diñatu ceradena! Or bertan ezagutzen zaitugu gure Jaun eta Jangoico soberanotzat. Adoratzen zaitugumen deratasunezco sentimendu, obeditze uzcur, eta humiltasun ondoric-gabeenecoarequin, eta Sacramentuco idurien estalpean ezentaturic, cere Biotz Sagraduac aguertzen dizquigun amore ta biotzberatasun azquen-gabeagatic, milla ta milloiesquer biotz-biotzetic ematen dizquitzugu. ¡Ay Jauna! penaz ta naigabez ososamiñduric guizonac dizuten tratamendu gaistoaz, eta guc guerroc izan dizugun esquer-beltz eta leyalezaz; naidegu, cere Magestade Jaincozcoaren aurrean auzpezturic, eguintza onenchen bidez, gucien aurrean, amodiozco Sacramentu adora-

garrionem contra, leen eguin diran, ta aurrera eguin leizquean charqueri, ezbear, donauslequeri, ta gogortasun danen ordaintze aguirico ta otsandico bat eman. Damu degu, Jauna, dizugun beguirune guchiaz; eta guero zuganaco epeltasun ta dollorqueriaz, ¡O Jesus gutizgozo ta gure Erredimitzalle chit maitagarria!.... Aparta itzatzu, Jauna, cere beguiac gure gaiztaquerietatic, eta zure betico caridadearen garvici iracequietan gure biotzac, Añgueru-Serapiñenac becela, urtutzea iguzu; noizbait mereci dezagun cere gracia-requiñ Zu icustea ta gozatzea, eta Santuequin-batean ceruan beticotasun gucian zure alabantzac cantatzea. Amen.

Jesusen Biotzaren idurirem baten aurrean egunero esan edo eguin bear dan
Esqueintza.

Nic N. N..... esquer-onecoa izan

naitzatzun eta nere desleyaltasunac ordain̄tzeco; escuratsen dizut nere biotza, eta ematen naitz atzu oso-oso cerrori; ¡Onere Jesus maitagarria! eta cere graciarequin, egundaño aurre-racoan ez pecuric eguiteco asmoa artzen det.

I. Oarquera. Egunero Jesusen Biotzaren idurirem baten aurrean Esqueinza au errezatzen duenari, eguin-du ciozcan Aita Sontu Pio VII garrenac eun eguneco indulgenci edo barcamen partezcoa eguneroco; eta barcamen osoa illeroco, edo illean bein irabaci leiqueana, confesaturic eta comulgaturic, eta Jainco G. Jaunari Aita Santuaren gogoraco escaturic.

II. Oarquera. Beste orrembeste barcamen, Purgatorioco animai ezarri leizqueanac, irabazten dira, Jesusen Biotz Eriotzaratuari, egunero iru aldiz equiten zayon Escari urrengo onegatic..... (Pio IX 1850.)

*Escaria Jesusen Biotz eriotzatuari,
egunero iltzen diranen aldé.*

¡O Jesus guciz erruquitsua, ta animen maitatzallea! Cere biotz chit Santuaren eriotzaco oña ceacgatic, eta Cere Ama Sortzez oso-garbiaren naigabeacgatic, erregutzen dizut, arren garbí ditzatzula zure odolean, orain iltze-co zorian dauden, eta gaur ill beaduten mundu gucico becatariac. Ala izan dedilla.

Jesusen Biotz eriotzaratua, erruqui zaite eriyetzaz.

Ori bera latíñez.

OREMUS.

¡O clementissime Jesu, amator animarum! obsecro te per agoniam Cordis tui Sanctissimi, et per dolores Matris tuæ Immaculatæ, lava in sanguine tuo peccatores totius mundi, nunc

positos in agonia, et hodie morituros.
Amen.

Cor Jesu in agonia factum, misere-
re morientium.

*Jesusen Biotz done-sagraduaren hon-
ran, icenean eta alabanzan, jayerazco
Coroya edo Erregualdia.*

ŷ. Deus in adyutorium meum in-
tende, etc.

LENENGO ALDIA.

¡O nere Jesus, oso maitagarria! Pen-
satzen ta gomuntatzen adi naicela ce-
re Biotzaren gañean, eta icusiric dala
becatariantzaco onguinai ta gozota-
sun utsa; nero nena sentidet alaitzen
zaidala, eta ceregandic ondo artua
izango dalacoaren uste oso-osoac be-
tetzen du. ¡Ay cein peccataria, nere zo-
ri gaiztoan, izandu naizan!... Baña
orain, San Pedro eta Magdalenaren
antzea, da muturic eguiaz, gorrota-
tzen ditut nere peccatu ain negargar-

riac batez ere zure contra diralaco; ¡ó nere ontasun gustizcoa....! Bay, bay, idazu arren barcacio osoa; cere biotz agatic escatzen dizut; bada milla bider ill nayago det, zu ofenditu baño; eta bacar-bacarric zu amatzeco ta maitatzeco vici nai det. Amen.

Aitagurea, ta bost *Gloria* Jesusen bost zauri edo lлага eta Biotz sagra duaren honran ta alabazan.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitca!
Gartu ta gueitu idazu
Beti zu amatzea.....

BIGARRENA.

Bedeincatzen det. ¡O Nere Jesus! zure Biotz guztiz humilla, eta esquer milla, Jauna, ceren, bera nere ispillu ta ejemplotzat ematearequin, ez bacarric cerorri jarraitzeara portizqui eraguiten didazun, ezpada gañera cere humillatze aimberterequin nere bidea erraztu ta launtzen didazulaco. ¡Cein

zoro ta esquer-beltzecoa izan naitza-
zun...! ¡Ay cembat bideutsa guite
eguin ditudan...! Barca eguidazu ar-
ren. Ez gueyago andinaitasunic, ez ar-
roqueriaric; bada segui nai dizut biotz
humillarequin humiltazuneco bide-
etan, eta ala irichi paquea ta salvacioa.
Idazu bada indarra ta graciazco que-
mena, eta bedeincatuco det beticota-
sun gucian zure Biotza. Amen.

Aitagurea ta bost Gloria &.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitea!
Gartu ta gueitu idazu
Beti zu amatzea.....

IRUGARRENA.

Arritzen nau. ¡O nere Jesus! zure
Biotz aín sufritzalleac, eta esquerrac
berriro, utzi cisquigutzun eramankui-
zunic andienetaco aimbete ejemplo
miragarrigatic. ¡Cembat damutzen za-
dan alperric oraindaño arpeguira
eman didaten chapelquerizco maña ta

sunaz, ceñac eguiten cidan eciñ eramatea desgustoric chiquienic ere! ¡Ay nere Jesus maite-maitea! ezarri eguiozu arren nere biotzari amore iracequi ta irauncorra naigabeacganaco, eta gurutze, ildura eta penitencia ganaco; Calvariora jarraitzen dizudala, igaroadiñ Cerorrequin gloriará, Paradisuco pozaldi beti-beticora. Amen.

Ailagurea bost Gloria &.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotzmaitea!
Gartu ta gucitu idazu
Beti zu amatzea.....

LAUGARRENA.

Icaratzen naiz, ¡O Nere Jesus! zure Biotz oso-malso eta gozatsuaren aurrean, icusiric ceñ beste moducoa dan nerea. Contraric chiquienarequin, queñu edo itz contraco edo ceñequin, be-reala senticor eguiten naiz, eta erren-curaturic purrustaca banabill, eta asarratzeroño quejatzen naiz. ¡Ay,

Jauna! barca idazu arren nere eciñei amana, eta idazu gracia zure malso-tasun aiñ irmeari edoceiñ gora bera ta contracotan aurreracoan jarraitzeco; paque santu ta irauncorbatez modu-onetan beti goza dezadan. Amen.

Aitagurea bost Gloria &c.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitea!
Gartu ta gacitu idazu
Beti zu amatzea.....

BOSTGARRENA.

Mereci du, bay ¡O Nere Jesus! zure Biotz oparoac secula-gucian alabatua izatea, eriotzaren da infenuaren garaitzallea dalaco. Orain, Jauna, egun-daño baño gueyago lotsatzen naiz, aiñ quemengabea ta chaldana nere biotza icusteaz, bada erocer zomorrotzequin bildur da bereala. Ez gueyago quemene-cic, ¡O Nere Jesus! Idazu, Jauna, bear dedan indarta, ausardiya, mundu onetan peliaturic eta baza

irabaciric, alaitazunez guero cerorre-
quin ceruan garailari viciniadiñ. Amen.

Aitagurea bost Gloria &.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitea?
Gartu ta gueitu idazu
Beti zu amatzea.

*Zucentzen gueradela oraiñ Ama Virgi-
ña-ganonz eta bere servitzura oso ber-
rico ematen gaitzaitzcala, eta bere Biotz
amatsuagan compiantza betebetearequin
esan deyogun.*

Zure Biotz oso-gozoaren doay eder
gutziticoacgatic, irichi idazu jó Jain-
coaren ta nere Ama Virgiña Maria!
jayera eguiazco sendo bat cere seme
Jesusen Biotzsagraduaganaco: au nere
pensamentu ta sentiera guciaquiñ sar-
turistic, bete ditzadan ondo nere eguin-
bear danac, eta biotz alaiyarequin beti
eta batez-ere gaur, Jesucristo gure
Jauna servi dezadan. Amen.

Oarquera. Biotz damuonezcoaz

Jesusen Biotz Sagraduaren honran
coroy edo erregualdi oec ondo erreza-
tzearren, emanac daudé irureun egu-
neco barcamen edo indulgenciac. Eta
egunero errezaturic irabaci leique
illean bein barcamen-osoia, illaren
egunen batean, orretaraco confesatu
ta comulgatu ezquero, eta erreguturic
Aita Santuaren asmo santuetaraco.
Barcamendu edo indulgencii oec Pur-
gatorioco animai ezarri leizqueanac
dirade.



Jesusen eta Mariaren Biotz guciz Santuac alabatzeco bederatzi eguimbide edo opicio.

Obeto contu pisca batequiñ Ceruto bederatzi Aingueru-taldeen antzera ta leyan Jesusen eta Mariaren Biotz guciz sagraduac honratzeco, maitatzeco ta alabatzeco; persona on ascoc bederatzi lagunen artean bete oi dituzte, bacoitzari dagoquion eran, emen ipiñiric dauden bederatzi langai edo eguimbide labor. Oec chandaca edo choch eguinda artzen dirá ill bacoitzaren leenengo ostiral goicean, edo orobat aurrean; eta bacoitza, irten zayon eguimbide choaill artan cintzo betetzen sayatzen da Jesusen ta María Virgiñ Amaren amorez, ta biyen gloriaric andieneraco.

Lenengo lambidé edo eguitecoa.
Eraguillea.

Eraguilleac, batequiten dala gogoz ta biotzez Tronuac edo Jargoyac deritzaten. Aingueru-taldearen alabanzal diaquin, sayatu bear da Jesusen eta Mariaren Biotz Sagraduenganaco jayera edo devocioa or-emen zabaltzen ta egozten bere ejemplo ta izqueta onaquin, escaturicere Jaungoicoari bere erregualdietan, barreatu dedilla jayera aiñ eder ta santu au.

Bere *vertutea* bada izango da, itz onaquin eta batez ere obra onaquin lagunai ejemplo ta espillu becela izatea.

Jaiegunean eguingo die Jesus Sacramentatuari ta Ama Virginiari bisita edo icustaldi bat, iru *Aitagure* ta iru *Salve* errezatuaz; eta orobat egunero errez albadu, ta bere beargayac uzten badiyé.

EGUNERO jaiquitzean oiratzean eta noitzean bein egun bitartean esango dié.

Jesusi.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitea!
Sutu ta gueitu idazu
Beti zu amatzea.....

Eta Ama-Virginari.

Virgin-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetic.
Pecatu galgarri ta
Lagun gaiztoetatic.

BIGARREN EGUITECOA.

Zucentzallea.

Zucentzalleac, bat eguiñic gogoz ta biotzez ceruco Ainguerutalde Alment-suen edo Potestadeen icena daucaten erregu ta alabanzaquin, escatuco dio Jaungoicoari guizonac yandi Sacramentu chit Santuan artzen dituen ez-bear, charqueri, ta beguiraezen bar-cacioa, ta batez ere, *Comunio charrena*.

Bere bertutea izango da, caridadearen, isiltasunaren, ta cintzotasunaren contraco utzeguiteric chiquienic ere ez eguiteco, contuz ta arretaz ibilltzea.

Astelenean, eta egunero albadu, Sacramentu guciz-Santuari ta Ama-Virgiñari bisitaldi bat beintzat eguisigo die, fedezco ichedomenezco eta caridadezco egunitzac esanaz eta Virgiñaren letaniac errezatuaz.

Egunero jaiquitzean, oiratzean eta noizean bein egun bitartean esango dié.

Jesusi.

Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitea
Gartu ta gueitu idazu
Beti zu amatzea.

Eta Ama Virgiña-ri.

Virgiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetic,
Pecatu galgarri ta
Lagun gaiztoetic.

IRUGARREN EGUITECOA.

Adoratzallea.

Adoratzalleac parte arturic biotzez Aiñgueru-Jabe edo Dominacioen alabanzetan batez ere irutasun guciz Santuari Jesus eta Mariaren Biotzac beti ematen ai diranctan, egongo da Eliza, Capilla eta beste lecu sagra-duetan arquitzean, arreta ta beguiru-neric aundienarequin nunai Jaincoaren aurrean gaudela oroituric.

Bere bertutea izango da modutsua ta egoquia, ta batezere, lecu santuetan beguirunetsua izatea.

Asteartean visitaldicho bat edo beste Sacramentu chit Santuari ta Ama Virgiñari eguingo die, escatzen diola Andre Maria Virgiña Sortzez oso Garbiari bere Seme Saincozcoa biotz pres-tu ta garbiz beti maitatu ta bear becela adoratzeco gracia ta laguntza; erreza-

• turic bien Biotz chit Santuai iru Aita-
gure ta iru Ave-Maria.

Egunero jaiquitzean, lotaracoan ta
beste aldiren batzuetan esango die.

Jesusi.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitea!
Gartu ta gueitu idazu
Beti zu amatzea.

Eta Ama Virgiña-ri.

Virgiña-Ama, arren gordo
Nazazu gaitzetic,
Becatu galgarri, ta
Lagun gaiztoetic.

LAUGARREN EGUITECOA.

Maitazalea.

Maite edo amanteac aingueru-Sera-
piñ edo Sutuequin bat eguitendala
sayatuco da alduenez ordaiñtzen bere
amodiozco eguiteaquin eta maitetasu-

narequin, guizonen epeltasun eta atzeratasuna, Jesusen Biotzac dien amore neurrigabeanean, ta batezere Jaincoari censagratutaco personena; erreguturic sutu ditzala biotz guciac, eta are gueyago Congregacio edo Billeraco lagunac bere amorean.

Bere bertutea izango da lagun-urcoacganaco amore sendo irauncorra, ondo beguiratuaz guciai barcatuaz biotzez gaitz-eguiñ edo sentieraci digutenai, adizquitzera sayatubaz etsay edo gorroto diranac, on-eguiñaz alduenez beartsu, gaiso edo premian dagoanari &.

Asteazquenean visitaldi bat edo beste Sacramentu chit Santuari ta Ama Virginiari eguingo die, erreguturic pistu dezatela mundu gucian Jaincoaren amore su-garra.

Egunero jaiquitzean, oiratzean eta noicean bein egumbitartean esango die.

Jesusi.

‡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maiteal
Gartu eta gueitu idazu
Beti zu amatzea.

Eta Ama-Virgīna-ri.

Virgīn-Ama, arren gorde
Nazazu guitzetie,
Pecatu galgarri, ta
Lagun gaiztoetatie.

BOSTGARREN EGUITECOA.

—
Icaslea.

Icasleac, Aingueru-jaquintzu edo
Querubiñ-equin batean, escatuco dio
Jainco Gure Jaunari guizon guciei
isuri deguiela bere eguiazco ta ceruzco
jaquintzaren ugaritasuna, salvacioco
videa icasi ta jareñi dezaten; eta be-
rezat Jesus ta Mari-gandic esanac
becela artuco ditu, ta gomuntatuco
ditu Salyatzallearen itz oec: «Discite á

me quia mitis sum et humilis Corde.»
«Icasi ezazue nigandic, ceren malsoa
naicen eta humilla Biotzez.....»

Bere bertutea izango da Jaincoaren
itz-isill ta adierai ondo erantzutea ar-
roqueriraco grina menderatzea, eta
besterequin eguiaz humilla, ochana,
ta biguina izatea tratuan ta itzetan.

Ostegunetan Sacramentu chit-San-
tuari ta Ama Virginiari visitaldi bat
edo beste eguingo die, biotzezco mal-
sotasun eta humiltasuna escaturic be-
rezat, eta errezaturic *Credoa* ta *Salvea*
azquenean contriciozco edo damuo-
nezco actoa eguingo du.

Egunero..... jaiquitzean, oiratzean
eta noicean bein egun bitartean esen-
go die.

Jesus-i.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitca!
Sutu eta gueitu idazu
Beti zu amatzea.....

Eta Ama-Virgüna-ri.

Virgüñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetic,
Pecatu galgarri, ta
Lagun gaiztoetatic.

SEIGARREN EGUITEOA.

Jauscañiya.

Jauscañi dana, vertuteac deritzan Aingueru-taldearequiñ alcaturic biotzez, eta batecere amoriozco Jauscañi Jesucristo gure Jaunarequin bateguiñic, esqueñico da Aita-Beticoari, ordaintzeco alduenez Sacramentuan ta lecu santuetan guizon gucien, batez ere berari consagratuengandic artzen dituen charqueri ta esquer-gabeta-sunac.

Bere vertutea izan bedi, griña gais-toac ilduratzen ta escuratzen aurre-ratzea; bere genio ta andiusteari gogor eguiñic, janean edo edanean neurritz

ibilliric, gustoco gauza embat besteri
utziric, beguai contuarturic, &.....

Ostiraletan Jesus ta Mariaren Biotz
sagraduei bisitaldiren bat edo beste
eguingo dié, desirainduric Jainco Sa-
cramentua, eta erreguturic becatariac
ondu ta salva ditecen, errezaturic
atcenean bost *Aita guré*, bost *Ave*
Maria et bost *Gloria*.

Egunero jaiquitzean, oiratzean eta
noizean bein egun bitartean esan-
go die.....

Jesusi.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitea!
Gartu eta gueitu idazu
Beti zu amatzea.....

Eta Ama-Virginari.

Virgín-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetic.
Pecatu galgarri ta
Lagun gaitzoetatic.

ZAZPIGARREN EGUITECOA.

—
Servitzaria.

Servitzaria, Lenen-aingueru edo goiain-gueruaquin bateguiñic, eman-go zayo oso ta biotzez Jesucristo G. Jaunarii, bere Jaincozco amore cateaquin lotua egon dediñ, bera gure onguinai ta maitetasunez Aldarectan aiñ guganatu dagoan ezquero; escaturic bereganatu ditzala biotz guci-guciac.

Bere virtutea izango da Jaungoicoaren borondatearequin berea bat eguita, obedituric bear becela Jaincoac eratu dizquion nagusi, aguintari maisu ta buru dituenari.

Larumbat edo zapatuetan, albista edo bisitaldia eguingo die Jesus ta Mariaren Biotz doatzuai Eliza edo lecu santurem baten; escaturic bereganatu ta lotu ditzatela guizonen biotzac Jaincozco amore-cateaquin, aingueruequin ceruco libretasun beticora

irichi arte; errezaturic atcenic Sei-Aita-guré sei *Ave-Mari* ta sei *Gloria*.

Egunero jaiquitzean oiratzean eta noizean beñ egun bitartean esango dié...

Jesusi.

¡Nere Salvatzallea
Chit Biotz maitea!
Sutu eta gueitu idazu
Beti zu amatzea.

Eta Ama Virgiña-ri.

Virgiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetic,
Pecatu galgarri ta
Lagun gaiztoetatic.

ZORTZIGARREN EGUITECOA.

Escalea edo Erregutzallea.

Erreguzale edo Escaleac, Alcar arturic Aingueruequin escatuco dio Jaincoari isuri ditzala graci ta onda-

sun ugariac bere ta besteen batez ere Billera santuco lagunen biotzetara, gordeac izan ditecen gorputzeco ta animaco perill guztietatic.

Bere vertutea bildura ta modutasuna izango da beguiratzean, ibiltzean eta gorputzeco muguimentu danetan.

Igandi edo domecan, bisitacho bat edo beste Sacramentu chit-Santuari ta Ama-Virgiñari eguingo die iltzeco zorian arkitzen diranacgatic, eta Purgatorioco animagatic erregutzen due-la; eta errezatuco ditu iru alditz *Aitagurea*, *Agur Maria* eta *Gloria*.

Egunero jaiquitzean, oiratzean, eta noicean bein egun bitartean esango dié...

Jesus-i.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maitea!
Sutu ta gueitu idazu
Beti zu amatzea.

Eta Ama Virgiña-ri.

Virgiña-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetic,
Pecatu galgarri, ta
Lagun gaiztoetic.

BEDERATZI-GARREN EGUIMBIDEA.

—
Celataria.

Celataria, bederatzi Ainguerutal-deac batez-ere Lenencoi edo Principaduac erreguz bereganaturic sayatuco da ta aleguin eguingo du, Jesus ta Mariaren Biotz Sagraduequico jayera edo devocioa zabaltzen, ta besteai eracusten ta ezarritzen, lagun urcoen ere utseguiteac, era ta egoqui albadu, quenduric gauz oetan....

Bere vertutea izango da, inorc ere Jaincoa ofendi ez dezan arreta, zale, gogo ta eresi vicita andi bat.

Jaiegunean, eta astegunean ere egoqui balezaque, visitaldicho bat edo beste Jesus Sacramentuco ta Ama

Virgiñari eguitera joango da eresi ta celo andiaz; erreguturic gorde ditzala arren Jangoico G. Jaunac bere adisquidetzan erruezac eta justuac, eta oneratu ditzala becatari triste-errucarri gajoac. Onetaraco bost *Aita-gure* ta bost *Ave-Maria* errezatuco ditu.

Egunero jaiquitzean, oiratzean eta noiceañ bein egun bitartean esango dié...

Jesus-i.

¡Nere Salvatzallearen
Chit Biotz maiteal
Gartu eta gueitu idazu
Beti zu amatzea.

Eta Ama Virgiña-ri.

Virgiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetic,
Pecatu galgarri ta
Lagun gaiztoetic.

ELIZAN SARTZEAN

ETA ANDIC IRTEATEAN ESATEKO OTOITZ-BABUR EDO
ESCARICHOAC.

1

Jesus ta Mariaren
Biotz doatsu ac,
Eizquigutzne gureac
Zuen antzecuac.

2

Bestea.

Jesus ta Mariaren
Jaincozco Biotzac,
Urtu itzatzute amorez
Gureen izotzac.....

A. M. D. G.

BIGARREN PARTEA.

JESUSEN BIOTZARI CANTA TA ALABANZAC.

Lenengo Cantac.

Eztago cerura
Beste bideric
Jesusen Biotza
Becelacoric.

ELIZAN SARTZEAN

ETA ANDIC IRTEATEAN ESATEKO OTOITZ-BABUR EDO
ESCARICHOAC.

1

Jesus ta Mariaren
Biotz doatsu ac,
Eizquigutzne gureac
Zuen antzecuac.

2

Bestea.

Jesus ta Mariaren
Jaincozco Biotzac,
Urtu itzatzute amorez
Gureen izotzac.....

A. M. D. G.

BIGARREN PARTEA.

JESUSEN BIOTZARI CANTA TA ALABANZAC.

Lenengo Cantac.

Eztago cerura
Beste bideric
Jesusen Biotza
Becelacoric.

1	7
Ceruco gloria Gracia eguinié, Lurrera etortzen da Biotz artatic. <i>Eztago &</i>	Aiñgueruac daude Cerú guztitic, Biotz eder oni Ondo iritziric.
2	8
Aita Beticoa dago Beguirá goitic, Bere ispillu eder au Icusteagatic. <i>Eztago &</i>	Jesusen Biotza Beguiraturic, Guretzat ez dauca Erruquia baicic.
3	9
Espiritu Santu. Gucia andic, Aitac ematen du Semeagandic. <i>Eztago &</i>	Paradisu au dauca Beti zabalic, Pecatarientzat Ichi gaberíc.
4	10
Jaungoicotasuna Dago or jarriric, Biotz ori Jargoy Eder eguinié. <i>Eztago &</i>	Naizute, Cristaiuac, ;Sartu bertatic?..... Ceruraco ez dago Bide obeagoric.
5	11
Cerua ta surra Daude arrituric, Biotz eguzqui eder Argui orregatic. <i>Eztago &</i>	Ate au idiqui ta Gu zartzeagatic, Sacramentu orretan Dago ichiric.
6	12
Virgíña Amac ez du Beste atseguinié, Biotz onez baño Andicigoríc.	Gau ta egun daucagu Beti bacarric, Jachi bazagu ere Guri cerutic.

13

Guretze santua
Dauca gañetic,
Arantzac ta llagac
Alde guztitic.

14

Gu-gar amorezco
Naigabezcotie
Consolatzeco inor
Ez du lagunic.....

15

Amorez ta penaz
Ta oñacez illic
¡No la daucazute
Orren azturic?....

16

¡Beraz ez du izango
Alivioric,
Gure biotzac bere
Eguin bagueric!....

17

Fedez ta amorioz
Gu ira baciric
Jesus gueratcen da
Oso alaituric.

18

Ori escatzen digu
Bere aldaretic;
Billa dezagula
Gure onagatic.....

19

Iguer dabilienac
Jesus-engandie
Guero ez du izango
Ceruco ateric.

20

Ez dago munduban
Bezte biotzie
Gureac artzeco
Bere pareric.

21

¡Biotzen Jabea!
Arbitz emendic
Gucien biotzac
Bereagatic.

22

Or iduqui bitza
Bere aldetic
Ceru eder orretan
Ondo gorderic.

23

Adora dezagun
Biotz guztitic
Biotz Santu ori
Orain ta beti. Amen.

Eztago Cerura &.

(A Cardaveraz-enac.)

BIGARREN CANTAERA.

1

¡Jesus onaren Biotz maitea!
Gauza bat arren indazu;
Zugandic inoiz aparta ez nadiñ,
Zuregan artu nazazu.

2

Eziñdu ez inorcesango, Jauna,
Ez ta quiela videa:
Soldaduaaren lanza gogorrac
Idiqui ezqueroz atea.

3

Campoco lore guciac baño
Ederragoa izanic
¡Cergatic, nere lore ederra,
Zaude arantzaz beteric?

4

Alde guztitic artzen zaituzte
Arantzac eta gurutzec;
Oyec dirade lur gaito onec
Eman dizquitzun loreac.....

5

Idiquirican zure Biotza,
Sartu nai nazu Ceruan:
Ceru orretan naidet nic bici
Orduan, eta puntuan.

6

Sacramentuan catibu daucat,
¡Ay! nere Erredentorea
Amorioaz: Esta besteric
An preso daucan catea.

7

Santuen gozo, Santuen sari,
Santuen zori-on gucia,
Biotz onetan gorderic dago
Santu gucien gloria.

8

Amorioaz amorioa
Pagatzen bada munduan,
Zori onean ordaña naizu
Nigandic, Sacramentuan.

9

Pena bat beti iduquico det
Len Zu ez eragutuaz:
Atzera-penac aztuco ditut,
Aurrera Zu billatuaz.

10

Orañ daraño ibilli banaiz
Gurutzea gandic iguesi:
Gurutze orretan josiric nai det
Betico zurequin bici.

11

Egondu bada nere biotza,
Bici guztian idiquia,
Zu artu eta iduquico det
Beste gucienzat ichia.

Au da, Jabea, ill arteraño
Ematen dizudan itza;
Au ausi baño lenago, Jauna,
Galduco nuque bicitza.

(A Cardaveraz-enac.)

**JESUSEN BIOTZAREQUICO BEDERATZI LAM-
BIDEAC ZORTZICO ETA LAUCO ETAN.**

Lenengoa.—I. ERAGUILLEA.

¡O Biotz Jaincozco ta
Maitagarriena!
¡Ay! Zu amatzen garturic.
Neroni lenena,
Esqueñi albanizuque
Danic sutuena,
Guizon guztiac duten
Amoreic piñena!....
Arren, lagun zarute,
Jargoy Aingueruac,
Su-gar oyec ditecen
Izan zabalduac:
Ta eguizu zuc: ¡Jesusen
Chit Biotz maitea!
Zure aimbeste mesedez
Guizona ez aaztea.

II ZUCENTZALLEA.

¡O ze miñantz ta pena
Nere Jesus ona!
¡Bada aiñ guchi da oroitzen
Zu amatzeaz guizonal
Dirudi ofenditzezo
Dagola ichodana
Zure Jaincozco Biotz
Aldarean dagonal
Aingueru-Almentzu ederracl
Lagun zadazute:
Damu onezco negarrez
Urtu nazazute:
Bai, Jesusen Biotza,
Barca bear diguzu:
Beti gaurtic aurrera
Zureac gaitzu.

III ADORATZALLEA.

¡Jesusen Biotz eder
Animen Artzaya,
Diguzuna guztioi
Betico onguinaiya!
Gu amorez tututzeco
Zerade ardagaya;...
Gueitu bedi arren guban
Zu adoratu naya.
Adoratu ditzagun,
O Aingueru-Jabeac,
Jesusen Biotzaren
On paregabeac.

Agur bai, Jesus, agur:
Zure Biotzean
Naidegu bici oraiñ da
Betitasuncan.

IV MAITAZALEA.

Nola ez, Jesus, zatitu
Naigabez biotzac
Zuganonz icusirie
Guizonac aiñ otzac?
¡Jesus! zure mesedeai
Aiñ guerade arrotzac
Ce, amarez gartu bearrez,
Beti gaude izotzac!....

Bay, Jesus, eguingo dèt
Aleguiñez lana
Bildutzeco guizonen
Biotzac zugana.

Lagundu zaiguzute,
Serapiñ Sutuac,
Sututzeco Jaincoaren
Amorez munduac.

V ICASLEA.

Dezu, Jesus, Biotza
Ceru ta lurrean
Parerican-gabca
Jaquintas unean!

Aurreraci gaitzatu

Ceruco bidean,

Eta egui beticoai

Cintzo jarraitzean.

Aingueru-Jaquintiyac,

Lagundu erregutzen,

Ta Jaincozco jaquintzaz

Mundua arguitutzen.

Erreguz alcarturic,

Lan eguin dezagun,

Jaquidecenac ere

Cerura ditzagun. Amen.

VI JAUSCAÑIYA.

¡O Jesusen Biotza

Guizon-maita corra,

Ceñagati artu dezun

Eriotz gogorra!

Nai dizut guztien ordez

Nic pagatu zorra,

Escañirican beintzat

Nere biotz dollorra.....

Zure Biotz erdico

Jauscañi ederraquiñ

Bat eguiten naitzatu

Ceru-Vertuteaquin.

Barcatu deigula arren

Aita Beticoac,

Yori isurirican

Graci Jaincozcoac.

VII SERVITZARIA.

Amoriozco catez
Gugatic loturic
Sacramentuan zaude,
Jesus, humilduric.
¡Nola gu ez guera egongo
Zurequin pozturic?....
Eta ¿ez daude guztiyac
Zure ganaturic?....
Goiaingueru galayac,
Lagun zaiguzute,
Jaincoarenac biotzac
Izan bear dute.
Ceregana gaitzatzu
Bai, Jesus maitea;
Libretasun onena
Da zu servitzea.

VIII ERREGUZALEA.

¡Jesusen Biotz gozo,
Erruqui-utsa bera,
Gure amorez jechia
Cerutic lurrera!
¡Nora egatu gureac
Ezpada zurera,
Aingueru ta guizonen
Gordairu ederrera?....
Zuregana gatoz bay
Graci guztien esque;
Aingueru goardacoac
Lagun zaiguzute.

Arren barcacioa,
Jesus, viciyentzat,
Eta Purgatoquiyan
Dauden animantzat.

IX. CELATARIA.

¡Biotz guzti-guztien
Euzqui ta ispillua,
Gure amorezco garrez
Labe goritna!
¡Ay, Jesus, gar oyequin
Baneuca mundua
Oso zukanatzeco
Dana inguratua!...

Besteac zuregantz
Zelatari piña,
Bay, Jesus, eguingo det
Gaurtic aleguiña:

Aingueru Lenencoiac,
Neri arren lagundu,
Jesusen gloria dediñ
Zahal munduz-mundu. Amen.

JESUSEN BIOTZ SAGRADUARI BESTE
CANTALDI BATZUEC. (1)

I.

¡Oh Biotz Santu
Maitatiya!
Zu gure Erregue
Jaun aundiya...

1

Guacen, Cristaüac,
Aiñ da Munduan
Nola Ceruan
Agurgarri....

Guacen gue ere
Adora zagun
Ta alaba zagun
Biotz ori.....

2

Zu cera, Jesus,
Maite maitea,
Nere Jabea
Ta Jaincoa.
Natorquizu ni
Naigabeturic,
Ta oso humilduric
Cere aurrerá.

3

Suturic zaude
Beti guizonen,
Naiz gaiztoenen
Amorean.

¡Cergatic, Jauna
Su-gar biciac
Dauzcatzu ichiac
Biotzean?

4

Zabal itzatzu
Gar eder oyec,
Lurreco loyec
Quiscaltzeco.

Begüira, Jauna,
Gaistoen lana;
Ai dira aldana
Gaitzeraco.....

(1) Oee eta ondorengo cantac Eusqueraz ta
Gaztelaniaz musica edo soñu berean cantatzen dira.

5

Zure amoreac
Nola du eraman
Munduac da aman
Oztasunac?....

Españaz bein̄zat
Erruqui zaite
Lur gure maite
Zuc emanaz.

6

Atoz onera
Cere jargoya
Ceruracoya
Paratzera.

Zu zera Erregue
Nausi ta Jabe;
Vici zugabe
Gu eciñ guera.

7

Zu, Biotz gozoa,
Cera Aingueruen,
Eta Santuen
Alegriya.....

¡Noiz ote dizut
Nic ezarrico
Beti betico....
¡Bay! ¡beguiya!....

8

Adisquidetzaz
Niganatzera
Zere Biotzera
Natorquizu.

Sar nazazu arren
Barrumbe oyetan
Ta cunqui gucietan
Zurea nazu.

9

Orche egarria
Quendu nezaque....
¡Norc au dezaque
Zuc ez bestec?....

Bay, nere Jesus,
Da nai nerca
Vici ta iltzea
Zure amorez.....

¡O Biotz Santu
Maitatiya!
Zu gure Erregue
Jaun aundiya.

COMUNIOA EMAN DEMBORAN CANTATZECO
ITZNEURTUAC.

Zure Gorputz chit-Santua
Izan bedi gure lagun,
Berequiñ aurqui dezagun
Bildur gabe Cerua.

1

Zure Gorputz chit-Santua
Indarra da macalentzat,
Janaria sendoentzat,
Da becatarien oná.

2

Zure Gorputz chit-Santua
Da gozo paregabea,
Da osasuna ta paquea,
Da animaren bicitza.

3

Zure Gorputz chit-Santua
Da usay-eder Ceruzcoa,
Garaitzen duena nardoa
Eta Taborco lora.

4

Zure Gorputz chit-Santua
Da biotzen bicilecu,
Non arquitzen duten lecu
Zu amatzeco, ¡oh Maitea!

Zure Gorputz chit-Santua
Autatuenzat dezu abiya,
Num duten bicigarriya
Zure maitetasuna.

Zure Gorputz chit-Santua
Jan dezagula eriotzan,
Ill arte zere amorean,
¡Oh Jesus maitatsua!....

III.

ATZEN-AGURRA JESUSEN BIOTZ SAGRADUARI.

- Coruac.—¡Agur Jesusen Biotza
Gure bicilecua!....
- Erriyac.—Becar, Jesus chit lactana,
Becar bendiciyua.
- Coruac.—¡Agur Jesusen Biotza
Gurutzez zamatua!
- Erriyac.—Becar, Jesus chit lactana,
Becar bendiciyua.
- Cornac.—¡Agur, Jesusen Biotza,
Gugatic zauritua!
- Erriyac.—Becar, Jesus chit lactana,
Becar bendiciyua.
- Coruac.—¡Agur, Jesusen Biotza
Gurcaz jabetua!
- Erriyac.—Agur, ¡Jesus chit lactana!
Becar bendiciyua.

ARQUIBIDEA.

LENENGO PARTEA.

Jesusen Biotzari jayera ta escaerac.

Sartu-aurreraco jaquimbide edo oarquerac . . .	5
Billera santu onetan sartzeco escaera	10
Goiceroco escaera	11
Lotara-nurreco otoiza edo oracioa	12
Jesusen Biotz guciz Santua disiraintzeco- eguintza	13
Esqueintza.. (egunerocoa).. (oarquerac).	14
Escaria edo erregua Jesusen Biotz eriotzara- tuari Eusqueraz eta Latiñez.	15
Jesusen Biotz doné Sagraduaren honran.. &.. Coroya	17
Erregua Ama Virginiari — «Zure Biotz» &.. . . .	22
Oarquera edo ndieragarria	22
Jesusen et Mariaren Biot guciz Santuac ala- batzeco bederatzi eguimbide.	24
I. Eraguillea; II. Zocentzallea; III. Adorat- zallea; IV. Maitatzallea; V. Icaslea; VI. Janscañiya; VII. Servitzaria; VIII. Erregut- zallea; IX. Celataria	25-39
Elizan sartu edo irteteraco escarichoac	40

BIGARREN PARTEA.

Jesusen Biotzari canta eta alabanzac.

Lenengo cantac —Eztago Cerura &	40
Bigarren Cantaera —Jesus onaren Biotz maitea &	43
Jesusen Biotzarequico bederatzi lambideac zortzico eta laucoetan	45
I. Eraguillea; II. Zucenzallea; III. Adorazalea; IV. Maitazalea; V. Icaslea; VI. Jauscainiya; VII. Servitzaria; VIII Erreguzalea; IX Celataria	45-50
Jesusen Biotz Sagraduari beste cantaldi batzuec ¡O Biotz-Santu &	51
Comunioa eman demboran cantatzeco itznerutuac	53
Atzen-agurra Jesusen Biotz Sagraduari	54

A. M. D. G.





